

# Egunkaria aurrerap

Josune Mtz. de Albeniz



## Donostia abian

Egunotako albisteeek samina eragin dute euskaltzaleen artean. Euskaldunon Egunkaria itxi eta bertako zenbait ardurdun kartzelatu izanak gogor astindu du milaka euskal herritarren bihotza. Hala ere, joan den larunbateko manifestazioaz haratago, euskal gizartea erantzuten hasi da eta Donostian ere zenbait ekimen abian dira.

**K**ontseiluak deituta, joan den larunbatean Donostian egindako manifestazioa Euskaldunon Egunkariaren aldeko erantzun bikaina izan zen. Dena dela,

manifestazio egunean bertan eta ondorengo egunetan, euskalgintzatik eta beste hainbat esparrutatik, erantzun hori nahikoa ez dela eta Euskal Herri osoan euskarazko egunkaria izan dezagun eta euskararen aurkako erasoei aurre egiteko, herritarrek, hemendik aurrera, konpromisoa hartu beharko zutela nabarmendu zen. Ahots asko mintzatu dira ildo horretatik azken egunotan, eta haietako bat aipatzearen, Juan Mari Larrarte Euskaldunon Egunkariako Administrazio Kontseiluko kidearena: *"Konpromisoaren garaia da. Ez dugu Egunkariako langileek soilik esaten hori, baita Donostian bildu ziren milaka eta milaka lagunek ere. Euskaldunek bat egin dezagun eskatu zuten guztiek, herri hau eraikitzeko eta Madrildik datozen erasoekin amaitzeko dinamika bat martxan jartzeko"*.

Lan egiteko garaia da, beraz. Hainbat herritan Euskaldunon Egunkariaren aldeko batzordeak sortzen ari dira. Argitalpen honetako langileek beraiek egin dute batzordeak sortzeko deia, Egunkaria herriak berak sortu zuela gogoraraziz. Batzorde hauen egiteko nagusiak hiru izango dira: informazioa zabaltzea, atxikimenduak biltzea eta, batez ere, harpidetzak egi-

### Harpidetza eta dirua

Euskaldunon Egunkariako langileak egiten ari diren Egunero-ren harpidetza egiteko, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

943303555

943303554

Bestalde, Egunkariaren alde dirua eman nahi dutenek Euskadiko Kutxaren honako kontu korrontean sar dezakete:

3035 0092 56 0920055559

tea. *"Horrez gain, batzordeek dinamiko propioak aurrera eramaten badituzte, as-*

## Inoizko manifestaziorik jendetsuena

Joan den larunbatean, izugarriko jendetza bildu zen Donostian Euskaldunon Egunkariaren alde Kontseiluak deitutako manifestazioan. Hainbat komunikabide, kazetari edo argazkilariren arabera, gure hirian sekula egindako manifestaziorik jendetsuena izan zen joan den asteburukoa.

Donostiak gainezka egin zuen larunbatean eta manifestari askok ibilbidetik kanpora egin behar izan zuten protesta. Trafiko arazo ugari izan ziren, noski. Kualitati-

boki ere manifestazioa oso anitza izan zen, esparru eta iritzi ezberdinetako jendea bildu zuen eta. Komunikabideek, kultur munduak, kirolak, euskalgintzak, alderdi politikoek, sindikatuek... ordezkaritza izan zuten gure hiriko kaleetan. Aurpegi ezagun asko ikusi ziren bertan, haietako asko Donostiako bizilagunak: Harkaitz Cano eta Joan Mari Irigoien idazleak, Maialen Iriarte ETBko kazetaria, Mikel Laboa kantaria, Pedro Miguel Etxenike zientzialaria, hainbat zinegotzi...



Josune Mtz. de Albeniz

oz hobe", azaldu digute Egunkariako lanjileek.

### Batzordeak Donostian

Donostia, noski, ez da salbuespena eta euskaltzale taldeek lanari ekin diote. Egia izuzoan, esaterako, euskara batzordeak bilera deitu du datorren asteazkenean, martxoak 2, kultur etxean, 20.30ean, eta bertaratzeko gonbitea egin die auzoko elkartei eta oro har, egitar guztiei. Horrez gain, ostiral honetan, hilak 28, Egunkaria itxi izana salatzeke, pankarta handi bat jarriko dute Plaza Haundin, herritarrek bertan gogoko dutena idatzi dezaten. Beste auzo batzuetan ere batzordeak osatzen ari dira.

Donostiako euskalgintzako hainbat erakunde (AEK, zenbait euskaltegi eta ikastola, Bagera, EHE...) biltzen dituen Euskarak Batzen-ek ere auzoetan batzordeak eratzeke deia egin du. Egunkaria itxi izana gogor salatu ondoren, Euskarak Batzenek konpromisoa har dezaten eskatu die

Anoetara ere iritsi zen Egunkariaren aldeko oihua, joan den igandeko derbian.

## Donostiako auzoetan batzordeak osatzen hasi dira

herritarrei: "batzorde hauetan parte hartu nahi duen Donostiako euskaltzale orok, edota atxikipena edota harpidetza egin nahi duenak, bere auzoko euskaltegietara jo dezan eskatu nahi dugu, guztion artean, laster egunkari euskaldun bat eskura dezagun".

### Kontseiluaren kanpaina

Euskararen Gizarte Mugimenduen Kontseiluak, bestalde, euskarazko egunkariaren aldeko kanpaina abiatuko du, hainbat alderdi politiko, sindikatu eta elkarteren laguntzarekin. Kanpaina abian jartzeko erabakia joan den asteartean egindako bilera hartu zen; Kontseilua osatzen duten

erakundeez gain, EAJ, EA, Batasuna, Ezker Batua, Aralar, Zutik, ELA, LAB edota EHNE bertan izan ziren, eta denek bat egin zuten mobilizazioarekin.

Lerrook idazterakoan, kanpaina honen nondik-norakoak zehaztu gabe dauden arren, asteazkenean kontzentrazioak egin ziren Euskal Herriko udaletxeen aurrean "Egunkaria aurrera, bai euskarari" lelopean. Donostian ere lagun mordoxka elkartu ziren udaletxe aurrean.

### Udalaren eskaera

Euskaldunon Egunkariaren aldeko oihua Donostiako Udalera ere iritsi da. Izan ere, joan den astelehenean, hilak 24, Udal Bozera-mailen Batzordeak Egunkaria "berehala" irekitzea eskatu zuen, PSE-EEren, EA-EAJren eta Donostiako Sozialista Abertzaleak taldearen aldeko botoekin; PP abstenitu egin zen. Dena dela, baliteke Udalbatzarrak berak eskaera hori egitea, Kontseiluaren deialdiari erantzunez bilera egindakoek udaletan mozioak aurkeztea adostatu zuten eta.


Odon Elorza alkateak ere mintzagai izan du aste honetan Euskaldunon Egunkaria. "Egunkari bat itxea albuessen neurria da gizarte demokratiko batean", adierazi du alkateak. Elorzak gaineratu duenez, adierazpen askatasuna nekez berma daiteke egunkari bat itxiz gero, eta horregatik, Egunkaria zabaltzea eskatu du.



# Aurrera egin behar

Egunkaria itxi dute eta bertako zenbait arduradun edo arduradun ohi espetxeratu dituzte. Hori dela eta, hainbat esparrutan ari diren donostiarrei honako galdera egin diegu:

**“Euskaldunon Egunkaria itxi dute: hemendik aurrera, zer?”**



**Joxean Muñoz**

Idazlea

**E**z dakit zer egin daitekeen egokera honen aurrean. Egunkaria zabal dezaten presioa egin beharko litzateke, eta bestela, berri bat egiten hasi. Hamabost urteko lana kolpe batez lurrera bota badute, astuna izango da berriro beste proiektu batean hasi beharra, baina horrela beharko du. Nola? Ez dakit, egia esan; ez naiz gai egoera honen aurrean inori aholkuak emateko •



**Naroa Agirre**

Pertiga jauzilaria

**E**spero dut hemendik gutxira gauzak argitzea eta Egunkaria berriro irekitzea. Larunbateko manifestazioan argi ikusi zen zein den jendearen iritzia. Froga garbirik ez badago edo zentzuzko frogarik aurkezten ez badute, Egunkaria zabaldu beharko litzateke. Itxiera honekin, Espainiako Gobernuak nola dabilen ikusten da. Orain Egunkaria itxi badute, hurrengoan, agian, ikastolak izango dira, edo beste zerbaitekin jarraituko dute •




**Joxe Leon Otaño**

AEKko arduraduna

**A**EKn lehenengo miaketak egiten hasi zirenean, Kontseiluan ikusi zen hura ez zela eraso bakarra izango, eta bata bestearen atzetik etorriko zirela. Orduan ekintza plana antolazen hasi ginen. Bertan jaso genuenez, erantzun iraunkorra eman behar genion eraso andana horri. Egunkariaren aurkako erasoaren aurrean, plan hau alderdi politiko, sindikatu eta instituzioei bideratuko diegu. Bide hori urratzen ahalginduko gara •

**Ramon Etxezarreta**

Donostiako Euskara eta Kultura zinegotzia



**E**uskaldunon Egunkariaren itxiera behin betikoa izan ez dadin ahalegina egin behar dugu, jarraitu egin behar da irekitzea lortu arte. Behin betirako ixten badute, adostasunik handiena lortu eta Egunkariak utzitako zulo hori nolabait estali egin beharko litzateke •

**Igor Gabilondo**

Realeko jokalaria




**T**ristea iruditzen zait egiten ari diren guztia. Nire ustez, euskara zapaltzen ari dira. Ez dakit zer egin beharko litzatekeen, baina nire ustez, konturatu beharko lirateke ez dagoela inolako loturarik ETArekin, eta Egunkaria ateratzeko aukera eman beharko lukete. Egin-ek egin zuen bezala, beste egunkari bat atera beharko litzateke, izen berarekin ez bada, beste batekin. Beraiei arrazoia ematea baino, edozein euskal egunkari egitea nahiago dut •

**Josu Landa**

Idazlea



**B**atetik, Kontseiluak izandako papera oso baliagarria izan da, bazterretan zegoen amorru eta haserrea modu konstruktiboan bideratzea lortu duelako. Bestetik, langileek izan behar dute protagonismo guztia. Beraien esku utzi behar da produktu aldetik hemendik aurrera izango dena, bai Egunero izenarekin edo beste batekin. Azken 13 urtetan Egunkariako langileek ondo erakutsi dute profesional onak direla eta badakitela beraien lana modu independente eta zabal batez egiten •



**Joan Mari Irigoien**

Idazlea


**N**ire ustez, elkartzeko momentua da. Duela egun gutxi LAB eta ELA sindikatuek akordioa eman zen, baina horrek bere bidea egin dezan, eta benetan eraginkorra izan dadin, gizarte mugimenduek eta instituzioek bat egin behar dute euskararen defentsa sustuan, konplexurik gabe •



**Karmele Esna**

Santo Tomas Lizeoko irakasle ohia

**G**uztiok elkartu behar dugu. Manifestazioan azalduetako jende guztiak euskal prentsa erosiko balu, beste kuku batek joko liguke. Denok elkartu eta, denon laguntzarekin, Euskaldunon Egunkariak aurrera egin behar duela iruditzen zait, "Egunkaria" izenarekin edo beste batekin. Jendeak kontzientzia handiagoa hartu behar du, gutxi batzuk baikara Egunkariaren harpidedunak edota Egunkaria irakurtzen dugunak. Dena dela, ni baikorra naiz, eta irekiko dutela uste dut •



**Mikel Irastorza**

Euskal Herrian Euskarazeko kidea

**B**uru hotz izan behar dugu. Bere hizkuntzan komunikatzeko sortutako tresna kendu diote Euskal Herriari. Herriak proiektu berri bat sortu behar du, duela 13 urte sortu zuen bezala, eta herri ekimenetik sortua izan behar du. Horretarako, ezinbestekoa da diru bilketari ekitea. Euskal Herriari eta euskarari egindako eraso da. Euskalgintzak lidergoa hartu behar du, euskarak dituen beharrak aldarrikatzeko, eta dagokionari euskararen normalizazioak aurrera egitea eskatu behar zaio •

**Aizpea Goenaga**

Aktorea



**P**raktikoki, zerrikeria handia egin didate, Euskaldunon Egunkaria irakurtzen nuela, eta eguneroko hutsune erreal hori sentitzen dudalako. Egoera berri honen aurrean, hainbat gauza etorri zaizkit burura. Protestak egiten jarraitu beharko genuke, baina argi dago indarra komunikabideek dutela eta bada-kigu egoera honen aurrean ez dutela informaziorik eman-go. Nire ustez, kanpoko komunikabideek inplikatu beharko lukete •

**Luis Mokoroa**

Gastronomia Kofradiako presidentea



**E**z dakit zer egin daitekeen honelako zentzugabekeria baten aurrean. Larunbateko manifestazioan milaka eta milaka lagun egon ginen, iritzi ezberdinetakoak. Espainiarrek ez gaituzte ulertzen, eta Europak Euskal Herrian zer arraio gertatzen ari ote den galdetu beharko luke. Ez dakit zer egiten ari diren alderdi politikoak, baina bada egoera honi erantzuna emateko garaia •


**Arantxa Kaltzada**

Herri Irratiko kazetaria



**I**xteko agindua bertan behera uztea nahi nuke. Bestalde, Kontseiluak ez luke lidergo hori alde batera utzi beharko. Larunbatekoa Donostian egindako manifestaziorik handienetakoa izan zen, handiena ez bada. Odo ondo dago orain denok Eguneroko erostea edo bertan publizitatea jartzea, baina gerta daiteke dena hasierako boom honetan geratzea, eta arazoak luze joko du. Tematiak izan behar dugu, egoera honen aurrean konpromesioa hartu behar dugu •

EUSKAL HERRIARI



**Ander Fernandez**  
Errenteria

**E**z dago eskubiderik. Martxan honetan, euskal herritar guztiok espetxeratuko gaituzte. Dena dela, Egunero kalean dago. Beraz, baikorrak izan gaitezen •

**A**lbisteak ez ninduen gehiegi harritu, gauza bera egin baitzuten duela bost urte Egin-ekin. Hala ere, ezintasunak jota nago, batik bat, euskara kinka larrian dagoelako •

**Aitor Moral**  
Antigua



**Uxua Astigarraga**  
Intxaurren

**B**atez ere, atxiloteketek eragin zidaten harridura. Egunkaria itxita egotea ezin larriagoa iruditzen zait •

**A**rgi dago Espainiako agintariak nahai dutena egingen ari direla. Ez nuen inola ere espero Egungaria-rekin gertatutakoa. Ez litzateke harritzekoa izango edozein egunetan Euskal Telebista edo Euskadi Irratia ere ixtea •

**Eli Olasagasti**  
Lasarte Oria




**Alaitz San Roman**  
Intxaurren


**E**spainiar Gobernuak Euskal Herriaren aurka emandako beste urrats bat besterik ez da izan. Euskal Herriak euskarazko egunkari bat behar du, eta nola edo hala aurrera aterako da •

**A**morrazioa. Nik ia egunero irakurtzen nuen eta nire ustez, euskararen hutsune handia utzi du. Dena dela, Euskal Herrian indartsu gabiltza eta luze jo gabe egoerari buelta emango diogu •

**Loiola Iraeta**  
Amara Berri



**SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA ALDEA NABARITUKO DUZU**



**GURUTZETA**

Ostegunetan menu berezia 15 eurotan

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

Asteazkenetan garai batean bezala, txotxean kantuz (otxote bat)

Gurutzeta Sagardotegian egina. Oialume Bidea, Astigarraga, Gipuzkoa.  
Tel. eta Faxe: 943 55 22 42.  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



- Ikastetxe eta lantegientzako zerbitzu bereziak
- Era guztitako bidaiak, baita atzerrira ere
- Komuna eta literak dituzten autobusak

AVTOCARES  
**VLSA**

Tel.: 943 46 96 98  
Tel: 943 46 82 77